


aurre



Joan Paulo II.a eta Fidel Castro, bigarrenak lehenari 1996ko azaroaren 19an Vatikanon egindako bisitan

man diplomatikoak hautsi. Kubak beti eduki du enbaxadorea Vatikanon eta Vatikanok beti eduki du nuntzioa Habanan. Israelekin gertatu ez zena, adibidez, 1993 arte ez baitzuen Vatikanok Israelgo Estatua ezagutu.

Eliza katolikoa oso egoera txarrean egon da 1961ean Castrok apaiz eta moja gehienak uhartetik bidali zituenetik. *Bizardunen* iraultzaren aurretik 800 apaiz eta 3.000 moja zeuden Kuban. Elizak 212 eskola, hiru unibertsitate katoliko, haurrentzako 41 asilo, helduentzako hiru ospitate eta umeentzako beste bi zeuzkan. Cochinosko badiako eraso kontrairaultzailean kristauek eta hiru apaiz espaniarrek parte hartu zuten eta irla barruko apaiz batzuk CIArekin lotuta lanean ari zirela argudiatuta, Habanak bidali egin zituen erlijioso gehienak, baita kubatarrek ere. Urte askoan 200 apaiz eta 300 moja, eta 12 gotzain, besterik ez ditu onartu Habanak.

Bisitaren aurreko saiok

Vatikanoren mesedea irabazteko keinuak egin beharra zeuzkan Castrok. Baina Castro ez zegoen prest keinuak doan egiteko; ordaina behar zuen. Ordain horiek neurtzen, adosten eta egutegian aplikatzen pasatu dituzte urteak Habanak eta Vatikanok. 1966 urtean, estatu batuarrek bahimendua ezarri eta bost urtetara, Kubako gotzainen batzarrak bahimendua salatu egin zuen. Beste horrenbeste egin zuen 1972an EEB-Betako gotzainen batzarrak. Baina garai haietan Vatikanok galdutzat jotzen zuen Kuban. Bi estatuen arteko lehen hurbilketa saioa Wojtylaren lehen urteetan egin zen. Fidel Castrok 1985ean Frei Betto domingotar brasildarrari aitortu zionez, 1979an ia egin zuen bisita Joan Paulo II.ak.

Aita Santuaren lehen bidaia pastora la zen Erdialdeko Amerikan. Miami-ko lobby kubatarrek, ordea, presio handia egin zuen bisita Miami-ko kubatarrei egin ziezaien eta ez Kubakoei. Azkenean, ez batean ez bestean, Bahametan egin zuen geldialdia Aita Santuaren hegazkinak. Aldaketa horrek haserrea piztu zuen Castroren gobernuan, Castrok sekula gorde ez duena haserrea: «Ez dut ukatuko: ez zitzaigun batere gustatu, gu garelako Kubako nazioa, eta ez Miamin egon eta nazioari uko egin diotenak. Hori ikusita erabaki genuen hurrengo urteetan ez insistitzea», adierazi zion domingotarrari. Beste garai batzuk ziren ordea.

Duela zazpi urte, 1991n, aurreratu samarrak zeuden bidaiaren prestakuntzak, baina Kubako gotzainen eskutitz *sekreto* batek gaiztotu egin zituen berriro harremanak. Eskutitz horretan gotzainek oso kritika gogorak egiten zizkioten gobernuari. Berriro gotzainen beste idazki kritikotik batek, *El amor todo lo espera* (*Maitasunak dena itxaroten du*) izenburuarekin Cobreko Ama Birjinaren egunean kalera-tuak, zaildu egin zuen egoera diplomatikoa. Azkenik, 1994ko *batseroen* krisian Kubako Elizak gobernuarekin izan zuen jarrera kritikoa beste mugarri bat ezarri zuen Habana-Vatikanoa harremanetan.

Baina *idazkien gerrak* aurrera egin zuen bitartean, Ezpeletako (Lapurdi) seme batek, 75 urteko Roger Etxegarai kardinal euskaldunak, *Kuba* epigrafean zuen beste karpeta bat erantsi zion lehendik ere Txina, Vietnam, Serbia, Bosnia, Kroazia, Liberia, Togo, Borneo epigrafeekin ederki osatuta zuen lan diplomatikoen karpeta pilari. Azken 13 urteotan karguz Justizia eta Bakea Batzorde Pontifizioaren presidente izan da, eta hala da gaur egun ere. Batzorde horren ardura nagusia giza eskubideen zaintza da. Baina ardura horren azpian Wojtylaren bitartekari lana ezkutitzen da. Etxegarai da Vatikanoko diploma-ziak, eta Wojtylak bereziki, *mataza korapilotsuak* hariltzeko duen gizon diziplinatua. Bera izan da azken hamarkadan bitartekaritza lan gehien egin duen Vatikanoko diplomatikoa. *Itzaleko* Kanpo Arazoetako ministroa, beste era batera esanda.

Aita Santuak Vatikanoko argotean *ura probatzea* deitzen dena egite- ra bidali zuen Etxegarai kardinala Kubara. Etxegarai Kuban egindako gestioek asko hurbildu dituzte Habana eta Vatikanoa. Etxegarai behin baino gehiagotan mintzatu da jendaurrean, eta Vatikanoren boterearen izenean, EEBBen bahimenduen aurka. Kubari egindako keinutzat hartu dituzte *vatikanistek* adierazpen horiek. Keinu horien

• Karol Józef Wojtyła (Joan Paulo II.a)

500 urteotan italiarra ez den Aita Santu bakarra 1920ko maiatzaren 18an jaio zen Poloniako Wadowicen.

15 urte zituela, 1935an, Mariaren Kongregazioko presidente izendatu zuten. 17 urterekin Karl Marxen *Kapitala* irakurri zuen jatorrizko hizkuntzan. 1940ko hamarkadan bi aldiz saiatu zen Karmeldar Oinutsen ordenan sartzen.

1946ko azaroan apaiz egin zuten, 1958ko irailean gotzain, 1963ko abendua Cracoviako atzapezpiku eta 1967an Paulo VI.ak kardinal egin zuen.

1978ko urrian Kardinal Kolegioak Aita Santu izendatu zuen, Joan Paulo I. hil eta hilabete batera. Joan Paulo II.a izena hartu zuen, aurrekoaren omenez. Aurrekoak, Joan Paulo I.ak, azken bi aita santuen izenak elkartzuz (Joan XXIII.a eta Paulo VI.a) osatu zuen berea.

1981eko maiatzaren 13an jasan zuen atentatuaren eta eroriko batzuen ondorioz oso osasun egoera txarrean dago. Nabarmenak dira haren oinazeak eta mugikortasun arazoak. Vatikanok ukatu arren, Parkinson gaitza duela diote adituek. Beti adierazi du segitu egingo duela, Aita Santuek ez dutelako errenuntziarik egiten.

Italiatik kanpo 120 bidaia baino gehiago egin ditu. Bidaietan 450 egun pasatu ditu. Munduari 24 bira eman dizkio, eta milioi bat kilometro egin.

Elizako sektore askoren ustez, oso joera kontserbadorra bultzatu du Elizaren barruan.

Oroimena

Azken hamabost urte honetan, izan ditudan nuntzio arduengatik, urtero audientzia pribatua izan dut Karol Wojtyła aita santuarekin. Bazkaldu ere askotan egin dugu biok bakarrik. Beti txunditu nau zer oroimen ona daukan, kontuan hartuta nirekin bezala urtean zehar nuntzio askorekin egoten dela. Beti gogoratu izan da aurreko urtean esandakoaz.

Aita Santuaren bidaien emaitza inkongnita izaten dira. Castrok Vatikanora egin zuen bisitan garbi utzi zuen arazorik ez zela izango irlara egingo duen bisitan. «Nahi duenaz hitz egiten duela ere txalo egingo diot», esan zuen Fidel Castrok bisitaren ondoren Vatikanoko Estatu idazkaritzako kideekin egin zuen bazkarian. Joan izan da beste zenbait lekutara askoz errezelo handiagorekin. Bisita pastoralak izango da, ez politikoa. Kuban azken urteotan kristauek askatasun handia dute eta egoera horri egokitutako mezua emango du Aita Santuak. Ez da ezer berezirik gertatuko. Obandok askoz jarrera gogorragoa zuen Nikaraguako sandinistekin, Kuban Elizak gobernuarekin duena baino. Eta egoera bakoitzak bere jarrera berezitua behar du. Ez ditut diskurtsoak ezagutzen baina seguru nago diskurtso praktikoa izango direla, eduki erlijiosokoak eta kristau bizitza-koak. Aita Santuaren misterioa ulertu gabe ezin dira balorazio politikoa egin.

Ezin da ezkutatu, mundu guztiak telebistak ikusi duelako, ez dagoela bere osasun egoerarik onenean. Aldakako ebakuntza egin ziotenetik gazki dabil, oinaze handiekin. Baina gizon emana da, eta horrelaxe hilko da. Oso garrantzitsua da gizarte zibilean hirugarren adinaren alde egiten den apustua Elizak ere egiten duela erakustea. Baloratu behar da jarrera horrek duen emana, sakrifizioaren balioa. Gadafik behin galdetu zidan Aita Santuari izen handiko traumatologo batek edo talde batek egin ote zion ebakuntza. Nik ez nekiela esan nion, baina alor horretan Italiako onenak izan zuela lan hura egiteko ardura. Gadafik esan zidan traumatologia ebakuntzetan eraginkorrena talde lana izaten dela. Bere mediku pertsonalak esanda dakit eskaini diotela segurtasun guztiarekin aldakan duen arzoa konpontzea, baina ez du nahi izan. «Oinaze hau nirekin eraman behar dut». Bada beste xehetasun bat azken aldi honetan okerrera egin duena: ez zaio batzuetan ulertzen. Ez du beti arazo hori izaten, baina Gabon gaueko mezan ez zitzaion ulertzen. Baina bukaera arte segitu behar duela uste dut. Onartu beharra dago Aita Santua Kubara doan egoera fisikoan inor ez litzatekeela joango, ezta estatuburu bat ere.

• Jose Sebastian Laboa •
MALTA ETA LIBIAKO NUNTZIOA